

Munduko herrialde garatuenen pare

Pisa ebaluazio txostenaren arabera, OCDEren batez bestekoaren parean daude Hegoaldeko ikasleak

ASIER ITURRIAGA ETXEBARRIA Bilbo

Hego Euskal Herriko ikasleek munduko herrialde garatuenen pareko emaitzak lortu dituzte Pisa ebaluazio txostenean. Hiru urterik behin egiten da Pisa azterketa, eta bertan parte hartu dute munduko 57 herrialdeko 15 urteko 400.000 ikasleek. OCDEk (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) antolatzen du proba, eta bertan daude munduko 30 herrialde garatuenak.

Hego Euskal Herriko 5.519 ikasle egin zuten proba iaz, baina aurreko astean jakinarazi zituzten emaitzak. Bi orduko azterketa egin zuten, eta zientzia, matematikak eta irakurmenaren dituzten gaitasunak neurtu zituzten.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikasleek orain hiru urte parte hartu zuten lehenengo aldiz Pisa ebaluazio txostenean. Oro har, aurreko ebaluazio emaitzak errepikatu dituzte. Zientzietan izan dute hobeak lortu dituzte; irakurmenean, ordea, behera egin dute (beste 11 puntu). Nafarroak, aldiz, lehenengo Pisa ebaluazio txostena izan du. Irakurmenean izan ezik, OCDEren batez bestekotik gorako emaitzak lortu dituzte ikasle nafarrek.

Zientziak

Zientzien arloa izan da aurtengo Pisa txostenak zehaztu ebaluatu duen arloa. Nafarroako ikasleak izan dira emaitzarik onenak lortu dituzten Hego Euskal Herriko ikasleak. OCDEren batez besteko maila 500 puntuan dago, eta Nafarroakoek 511 puntu lortu dituzte. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikasleek maila baxuagoa eman dute zientzien arloan, eta OCDEren batez bestekotik behera geratu dira, 495 puntu lortu baitituzte. Dena dela, Pisa txostenean 5 puntuko aldea ez da esangratsu hartzen. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikasleek aurreko ebaluazioan baino 11 puntu gehiago lortu dituzte.


Bai Nafarroan eta bai Araba, Bizkai eta Gipuzkoan parekotasuna da ezaugarri nagusia. Ez dago ikasle bikain askorik, baina, era berean, gutxienez mailara iristen ez

■ PISA, BATEZ BESTEKO EMAITZAK


OCDE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea

Herrialdeak


Zientziak



Irakurketa




Matematikak




* Espainia batez bestekoetan sartuta daude Hego Euskal Herriko, Herrialde Katalanetako eta Galiziako emaitzak ere.

Errendimendu mailaren arabera




Sareen eta ereduaren arabera


Zientziak



Irakurketa



Matematikak



ITURRIA: OCDE

den ikasle gutxi dago. Nafarroan, esaterako, ikasleen %9 dira bikainak. Gutxienez mailara iristen ez direnak, aldiz, %19 dira. Antzeko zerbitu gertatzen da Araba, Bizkai eta Gipuzkoan: ikasleen %80 maila ertainekoak dira.

Emaitzetan eragin dezaketan aldagaien artean, ikasleen familien maila sozio-ekonomikoa esanguratsua da arlo guztietan. Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, aldagai ho-

rien eragina alde batera uzten badugu desberdintasun horietako batzuk desagertu egiten dira. Gauza bera gertatzen da zentroari dagokion indize sozial, ekonomiko eta kulturala kontuan hartzen bada.

Hizkuntza ereduaren artean egon daitezkeen aldeak dagokienez, ikasleen gurasoen maila sozio-ekonomiko eta kulturalak eragin zuzen-zuzena izaten du. D ereduko

ikasleek emaitza onak lortu dituzte. Sare kontzertatuko D ereduko ikasleek lortu dituzte emaitzarik onenak zientzietan: 513 puntu bildu dituzte. D publikoa batez bestekotik behera geratu da, 486 puntu erekin. Sare publikoko A ereduaren izan dira emaitzarik eskasena. Dena dela, kontuan izan behar da sare publikoko A ereduko ikasleen familiek dutela maila sozio-ekonomiko eta kultural apalena.

Matematikak

Matematiketan bakarrik lortu dute Araba, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikasleek OCDEko mailatik gorra egotea. 501 puntu lortu dituzte, OCDEko batez bestekoa baino hiru puntu gehiago. Gainera, orain 3 urteko emaitzen parekoak lortu dituzte. Nafarroako ikasleek aise gainditu dute OCDEko batez besteko maila, 515 lortu baitituzte.

Matematen arloan ere nabarmena da Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hezkuntza sistemaren ekitate maila. Ikasleen %80 inguru daude maila ertainean. Horren arabera, maila ertain kopuru handienetakoa duen laugarren ingurua dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Batez besteko mailara iristen ez direnak, aldiz, %16 izan dira.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako nesken eta mutilen emaitzen artean ez da alde handirik egon. Mutilek neskek baino 3 puntu emaitza hobeak lortu dituzte, baina alde hori ez da esanguratsua. Ez da gauza bera gertatzen OCDEko herrialde gehienetan, mutilek neskek baino emaitza hobeak lortzen dituztelako matematiketan.

Hizkuntza ereduak dagokienez, sare kontzertatuko D ereduaren izan da emaitzarik onena lortu dituen matematiketan. 517 puntu eskuratu dituzte, OCDEko batez bestekotik nabarmen gora. Sare publikoan D ereduaren izan da emaitzarik onena lortu dituen (496), ia-ia OCDEren batez bestekoaren.

Irakurketa

Testuak ulertzeko gaitasunean Nafarroakoak ez dira OCDEko batez bestekora iritsi: 481 puntu lortu dituzte, batez bestekoa baino 11 puntu gutxiago. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikasleek 487 puntu eskuratu dituzte, orain dela hiru urte baino emaitza eskasagoa.

Irakurtzeko gaitasunean alde nabarmena dago nesken eta mutilen artean: Araba, Bizkai eta Gipuzkoako neskek mutilek baino 37 puntu gehiago eskuratu dituzte. Mendebaldeko herrialdeetan errepikatzen den joera da neskek mutilek baino emaitza hobeak eskuratzeari irakurketan.

Hizkuntza ereduak dagokienez, irakurtzeko gaitasuna neurtzeko azterketetan ere sare kontzertatuko D ereduko lortu dituen emaitzarik onenak. 507 puntu eskuratu dituzte, OCDEko batez bestekotik gora. Sare publikoko D ereduko ikasleak 478 puntu eskuratu dituzte, OCDEko batez bestekoa baino 14 puntu gutxiago.